TUTORIALA · EIZU LANGILEAREN ATARIA

Aktibatu zure borondatezko ekarpenak nominaren bidez 4 urratsetan

Administrazio Orokorrean lan egiten baduzu, borondatezko ekarpenak egin ditzakezu Itzarri Enpleguko BGAEra, zuzenean zure nominatik. Horretarako, intranetean / langilearen atarian (EIZU) eskaera bat egin behar duzu.

1. Aukeratu «Langileak Itzarrira ekarpena eskatzea»
2. Egiaztatu hasierako hilabetea
3. Dokumentaziorik ez: jarraitu
4. Berretsi eskaera

1 1. URRATSA — Sartu eskaerara

Alboko menuan, sartu **Nire gestioak** atalean eta aukeratu **Eskaerak aurkeztea**. **Solicitudes Disponibles** atalean, zabaldu **13a - Gizarte-arreta (aurrerakinak, maileguak eta dirulaguntzak)**; ondoren, zabaldu **Langilearen Itzarrira ekarpena** eta sakatu **Langileak Itzarrira ekarpena eskatzea**.

Nire gestioak › Eskaerak aurkeztea › 13a - Gizarte-arreta (aurrerakinak, maileguak eta dirulaguntzak) › Langilearen Itzarrira ekarpena › **Langileak Itzarrira ekarpena eskatzea**

1.1 **Solicitudes Disponibles** atalean, bilatu **13a - Gizarte-arreta (aurrerakinak, maileguak eta dirulaguntzak)** eta zabaldu.



1.2 Zabaldu **Langilearen Itzarrira ekarpena**.



1.3 Sakatu **Langileak Itzarrira ekarpena eskatzea**.



2 2. URRATSA
Egiaztatu hasierako hilabetea

Inprimakian, nominaren bidezko ekarpenak **zein hilabetetatik aurrera** egingo diren **automatikoki beteta** agertuko da. Sakatu **eskuinera begira dagoen gezi urdina** jarraitzeko.



3

3. URRATSA

Jarraitu ezer erantsi gabe

Urrats honetan ez duzu ezer egin behar: sakatu berriro **eskuinera begira dagoen gezi urdina** azken urratsera igarotzeko.

ⓘ **Ez duzu dokumentaziorik aurkeztu behar.** Eskaera honek ez du inolako dokumenturik aurkeztea eskatzen.



4

4. URRATSA

Berretsi zure eskaera

Sakatu **«Confirmar solicitud»** botoia, Itzarri Enpleguko BGAEra nominaren bidez borondatezko ekarpenak egiteko eskaera osatzeko.



Eginda! Zure eskaera erregistratuta geratu da

Adierazitako hilabetetik aurrera, Itzarrira egiten dituzun borondatezko ekarpenak zuzenean zure nominatik egingo dira.